

Gi2030 FESTIBALA | Zegama

Galderak hautatzeko dinamikaren sistematizazioa

Datu teknikoak

- **Non:** Zegamako Gaztelekuan, 2023ko uztailaren 1ean, larunbata.
- **Partaideak:** 30 inguru. Batez-besteko adina altua, eta oro har genero oreka. Partaideen profilaren ikuspuntutik anitza izan da: gehiengoa Zegamako auzokideak izan dira. Ordezkapen instituzionala ere egon da, herrikoa (alkatea, udaletxeko teknikari bat) eta Aldundikoa.
- **Talde motorretik:** 6 kide egon gara.
- **Luzapena:** 45-50 minutu.
- **Hizkuntza:** euskaraz, ez da xuxurlaririk behar izan.

Tailerraren emaitza

Ateratako 2 galderak:

- Nola bermatu interes kolektiboak ez direla interes pribatu/partikularrrak?
- Erabaki guneetan, nolakoa izan behar da parte hartzea? Zeintzuk dira mugak/ non parte hartzen da/ nortzuk parte hartzen dute?

Galdera aldatzeko proposamena:

- Nola hautatu ahal ditugu guztiok ordezkatzen gaituzten ordezkarriak? » Nola egin genezake sistema politikoa inklusiboagoa izan dadin, inor ez dadin geratu jadanik existitzen diren ordezkapen sistemetatik kanpo? Nola lortu hobeto ordezkatuak izatea?

Dinamikaren sistematizazioa

Sarrera

Dinamizatzaileak 8 galderak irakurri ditu banan-banan. Gobernantzaren eta erabaki-hartze partekatuen inguruko galderak direla azaldu du, baita ariketaren helburua: 8 galderetatik 2 galdera hautatzea. Hauexek izan dira hasieran aurkeztutako 8 galderak:

- Nola hautatu ahal ditugu guztiok ordezkatzeko gaituzten ordezkariak?
- Ba al daude alternatibak/ sor ditzakegu alternatibak erabaki hartzeak batasun politikotik ez daitezen igaro?
- Nola egin erakargarri erakunde publikoen lidergotza berdintasun ikuspegitik?
- Erabaki guneetan, nolakoa izan behar da parte hartzea? Zeintzuk dira mugak/ non parte hartzen da/ nortzuk parte hartzen dute?
- Nola eraldatu genezake alderdi sistema? Nola egin ikusgarri stakeholder, lobby eta abarren interesak?
- Nola bermatu interes kolektiboak ez direla interes pribatu/partikularrrak?
- Zein gaitasun garatu ahal dugu pertsona moduan nolabaiteko segurtasunekin izateko konfiantza gainerakoengan?
- Kontuak emateko zein mekanismo dago edo egon daiteke?

4 galdera hautatu

3-4 minutu eman die partaideei gustukoa edo interesekoa duten galdera hautatzeko, galderan bertan kokatuz. Ariketa hau azkar egin dute partaideek, nahiz eta batzuk zalantzati ere agertu, galderak "sakonegiak" direlako.



Horrela geratu dira emaitzak:

Galdera	Pertsona kopurua
Nola bermatu interes kolektiboak ez direla interes pribatu/partikularrak?	13 pertsona
Erabaki guneetan, nolako izan behar da parte hartzea? Zeintzuk dira mugak/ non parte hartzen da/ nortzuk parte hartzen dute?	8 pertsona
Kontuak emateko zein mekanismo dago edo egon daiteke?	3 pertsona
Nola hautatu ahal ditugu guztiok ordezkatzeko gaituzten ordezkariak?	2 pertsona
Nola egin erakargarri erakunde publikoen lidertgotza berdintasunaren ikuspegitik?	Pertsona 1
Nola eraldatu genezake alderdi sistema? Nola egin ikusgarri stakeholder, lobby etabarren interesak?	Pertsona 1
Zein gaitasun garatu ahal dugu pertsona moduan nolabaiteko segurtasunekin izateko konfiantza gainerakoengan?	0 pertsona
Ba al daude alternatibak/ sor ditzakegu alternatibak erabaki hartzeak batasun politikotik ez daitezen igaro?	0 pertsona

Beraz, emaitzei jarraiki, hauexek hurrengo txandan landu diren galderak:

- Nola bermatu interes kolektiboak ez direla interes pribatu/ partikularrak?
- Erabaki guneetan, nolako izan behar da parte hartzea? Zeintzuk dira mugak/ non parte hartzen da/ nortzuk parte hartzen dute?
- Kontuak emateko zein mekanismo dago edo egon daiteke?
- Nola hautatu ahal ditugu guztiok ordezkatzeko gaituzten ordezkariak?

Hausnarketa laburra

Dinamizatzaileak aukera eman die partaideei komunean jartzeko zergatik aukeratu duten galdera bat ala bestea. Iñaki Zabaletak (UPV/EHU) emandako Joxe Azurmendiri buruzko hitzaldian azpimarratutako ideietariko bat nahiko presente egon da dinamika honek piztu duen hausnarketetan: alegia, “gu”-aren eraikuntzarekin lotutakoa.

“Nola bermatu interes kolektiboak ez direla interes pribatu/ partikularrak?” galderan kokatu den gizon batek elkarbanatu du galdera guztiak iruditu zaizkiola “interesgarriak” eta “pentsatzekoak”, baina bere hautaketa egiteko irizpidea zehaztasuna izan da. Galdera guztiak oso “politikoak” izan arren, berak eta gainerako 12 kideek hautatuko hau dela gizartearen eta politikaren “horizontea” hobekien mugatzen duena azaldu du. Dinamika baino lehen izandako Joxe Azurmendiri buruzko hitzaldiarekin lotu du bere hausnarketa, azpimarratzeko “errealitatea konplexua, konplikatua” dela, eta proposatutako galderak, “aberatsak” izan arren, ez direla konplexutasun horretara egoki moldatzen: “horizonte dispertso, diseminatu batetara” eramaten gaituztela.

“Kontuak emateko zein mekanismo dago edo egon daiteke?” galderan kokatu den gizon batek hartu du gero hitza. Bere ekarpena aurreko galderarekin lotu du: publiko-pribatu arteko mugak bereizteko gai izango gara, baldin eta “zer den pribatua eta zer den publikoa ondo bereizteko mekanismoak” badaude. Onartu du galdera hau ere interesekoa iruditu zaiola, baina azkenik kontuak emateko mekanismoen inguruko galdera hautatu du. Galdera egokia da bere aburuz, komunitatearen inguruan hausnartzeko aukera ematen duelako, eta, are zehatzago, “komunitate guztietan esplikazioak emateko” bideak egoteko beharrarekin, “erabateko gardentasuna” funtsezkoa baita.

Txokoetan egindako ariketa: irizpideak aplikatu

Aurreko hausnarketak komunean jarri eta gero, dinamizatzaileak ariketaren hurrengo pausoa azaldu du: ateratako lau galderak lantzea, talde motorrak proposatutako sei irizpidetan oinarrituta. Horrela eginda, galderaren hautaketari konplexutasuna ematen diogu, eta ikertaldeak joerak identifikatzen ditu, partaideen ustez galderak irizpideekin zein puntura arte betetzen duten jasotzeko.

Horretarako, dinamizatzaileak parte-hartzaileak lau taldetan banatu ditu ausaz. Talde-motorreko kide baten laguntzaz, talde bakoitzak aurretik ateratako galdera

bat landu du, koloretako gometxen bidez galderak irizpideekin "asko", "zeozer" edo "ezer ez" betetzen duten baloratzeko.



Baloraziorako erabili diren irizpideak honakoak izan dira:

1. Oro har, galderaren formulazioa egokia eta pertinetza iruditzen zait (adb. argia da eta ez da anbigua, ez ditu "bai" edo "ez" bezalako erantzun sinpleak onartzen, azpi-galderak sortzea errazten du, etab.)
2. Galderak Administrazio Publikoek urgentziaz erantzun beharreko gaiak jasotzen ditu
3. Galdera Gipuzkoako lurraldean aplikagarria da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumenak ditu galdera honek lantzen duen gain
4. Galderak Gipuzkoako erronkei (sozialak, politikoak, ekonomikoak, ingurumenarekin lotutakoak...) erantzuten die
5. Galderak errenta, genero, hizkuntza, jatorri, etnia, etabarreko desberdintasunak kontutan hartzen ditu
6. Galderak demokraziaren hobekuntzarekin lotutako gaiak jasotzen ditu

Taldeen osaketa eta galderak berak desberdinak izan dira beraien artean. Horregatik, txoko bakoitzak erritmo desberdina eraman du, eta batzuk beste batzuk baino denbora gehiago behar izan dute izotza apurtu eta ariketarekin hasteko. Taldeetako batean eman den arazo nagusia irizpideak ulertzeko zailtasuna izan da. Beste talde batetako kide batek zalantzan jarri du Gipuzkoako markoari emandako garrantzia, "gehiegi" edota "zentzu gutxirekin" mugatzen

baitu ariketaren irismena. Joxe Azurmendi berreskuratuz, Euskal Herritik eta ez bakarrik Gipuzkoatik pentsatzeko gonbitea helarazi digu ikerketa taldeari, baita gainerako parte-hartzaileei ere. Honetaz gain, ez da azpimarratzeko arazorik egon eta 10-12 minututan ariketa beteta zuten talde guztiek.

Oro har, partaidetzan desorekak egon dira: euren ibilbide profesional edo intelektualagatik gaia pentsatuago dutenek, edota hitz egiteko ohitura handiagoa duten horiek, segituan hasi dira gometxak jartzen, eta erosotasun askoz handiagorekin elkarbanatu dute euren iritzia. Beste batzuk, ordea, ariketa konplexuegia delako edo beraien errealitateetik urrutiegi dagoelako, bigarren maila batean geratu dira dinamikan zehar.




Hurrengo taulak emaitzen sintesia jasotzen du:

Kontuak emateko zein mekanismo dago edo egon daiteke?						
	Demokraziaren hobekuntza	Desberdintasun sozialak	Gipuzkoako errotrak	GFA-k eskumenak	Urgentziatzko gaia	Formulazio egokia
Asko	2	0	6	6	4	1
Zeozar	4	5	0	0	2	4
Ezer ez	0	1	0	0	0	1
Erabaki guneetan, nolakoa izan behar da parte hartzea? Zeintzuk dira mugak/ non parte hartzen da/ nortzuk parte hartzen dute?						
	Demokraziaren hobekuntza	Desberdintasun sozialak	Gipuzkoako errotrak	GFA-k eskumenak	Urgentziatzko gaia	Formulazio egokia
Asko	4	4	0	2	1	4
Zeozar	1	1	5	2	2	1
Ezer ez	0	0	0	0	0	0
Nola bermatu interes kolektiboak ez direla interes pribatu/ partikularrak?						
	Demokraziaren hobekuntza	Desberdintasun sozialak	Gipuzkoako errotrak	GFA-k eskumenak	Urgentziatzko gaia	Formulazio egokia
Asko	11	8	8	7	5	9

Zeozer	0	2	1	1	3	1
Ezer ez	0	0	0	0	0	0
Nola hautatu ahal ditugu guztiok ordezkatzeko gaituzten ordezkariak?						
	Demokraziaren hobekuntza	Desberdintasun sozialak	Gipuzkoako erronkak	GFA-k eskumenak	Urgentziazko gaia	Formulazio egokia
Asko	4	3	0	1	2	0
Zeozer	0	2	3	2	2	5
Ezer ez	0	0	0	0	0	0

Begiratu azkar bat emanez, irizpideak ez dira apenas "ezer ez" kategoriarekin baloratu. Horrek esan nahi du tailerreko parte-hartzaileen ikuspuntutik, behintzat, landutako lau galderek irizpideak betetzen dituztela. Ondorio honen baitan bariazioak daude. Muturreko adibide bat interes kolektiboen eta interes pribatuen arteko gatazka aztertzen duen galdera dugu: kasu honetan gehiengoak baloratu du galdera honek irizpide guztiekin "asko" betetzen duela, eta inork ez du adierazi irizpideren batekin betetzen ez duela. Erdibideko emaitzak jaso dituen galdera bat da kontuak emateko mekanismoen inguruan galdetzen duena. Kasu honetan taldekideek adierazi dute galderak "zeozer" betetzen duela demokraziaren hobekuntzarekin eta desberdintasun sozialekin lotutako kezkekin, baita formulazio egokiarekin ere. Zentzu honetan, partaide bat galdera orokorregia ez den izango adierazi du. Argitasun falta honen aurrean, galdera "governantzen ikuspegitik" ulertzea proposatu du beste batek; hau da, *accountability* edo kontuak-emateko ardura gobernatzeko forma zabalago baten baitan jasotzea.



Erabaki-guneetan parte hartzeak nolakoa izan behar duen planteatzen duen galderak eztabaida sortu du gaiak duen lehentasunaren ikuspuntuetik. Taldekide batek onartu du "galderak demokraziaren krisiaren erronkari erantzuten" dion arren, "ez dela lehen mailako erronka bezala jasotzen" ez euskal gizartean ezta gipuzkoar gizartean ere ez. Zentzu honetan, badaude urgentzia handiagoz identifikatzen diren gaiak, antza, lehentasun handiagoa dutenak, bai gizartearen ikuspuntutik, baita administrazio publikoen ikuspuntutik ere (adb.: gizartearen zahartzea, klima aldaketa, zaintzak, etab.).

Guztiok ordezkatzeko gaituzten ordezkariak nola hautatu hausnartzen duen galderaren lanketan "gu"-aren inguruko kezka berragertu da. Galdera hau landu duen kide batek zalantzan jarri du galdera bera, existitzen ez den "guztiok" totalizatzaile batetatik abiarazten delako. Izan ere, "gu"-aren eraikuntza gabezi, hutsune eta bazterketa askoz osatua dago. Hartara, egokiago deritza ordezkapen sistemak duen eraginkortasunaren ikuspuntutik baino, "gu"-ak erreproduzitzen dituen bazterketen ikuspuntutik heltzea galderari. Alegia, ordezkapen-sistemaren inguruko hausnarketatik subjektu politikoaren inguruko hausnarketara igarotzea, subjektu hau ahalik eta inklusiboan izan dadin. Plenarioan gai hau berriro agertu da, jarraian ikusiko dugunez.

2 galdera hautatu

Txoko guztiek ariketa bukatuta, gidariak berriro ere talde handian jartzera gonbidatu du jendea. Banaka landutako galderak lurrera eraman ditugu berriro ere, eta parte-hartzaileei eskatu diegu aukeratzeko zein den prozesuaren hurrengo fasean erantzun behar den galdera. Dinamizatzaileek azaldu du kontutan hartzea eginda dagoen lana, nahiz eta korrespondentziarik ez eskatu irizpideen eta hautaketaren artean: gerta daiteke galdera batek irizpide gehienekin asko betetzea, baina hautatua ez izatea.



Hasieran egin bezala, partaide bakoitzak galdera bana aukeratu du, galderan bertan kokatuz. Emaitzak hauek izan dira:

Galdera	Pertsona kopurua
Nola bermatu interes kolektiboak ez direla interes pribatu/partikularrrak?	14 pertsona
Erabaki guneetan, nolakoa izan behar da parte hartzea? Zeintzuk dira mugak/ non parte hartzen da/ nortzuk parte hartzen dute?	9 pertsona
Kontuak emateko zein mekanismo dago edo egon daiteke?	1 pertsona

Nola hautatu ahal ditugu guztiok ordezkatzeko gaituzten ordezkariak?	5 pertsona
--	------------

“Gu”-aren inguruko hausnarketa berriro ere agertu da. Guztiok ordezkatzeko gaituzten ordezkariak nola hautatu galderan kokatu den emakume batek berriro ere elkarbanatu du “guztiok baztertzailerak” izan daitekeela, praktikan talde asko uzten baititu kanpoan: nortzuk gara guztiok, nor barnebiltzen du? Are gehiago, “nork daki guztiok zein garen?” “Guztiok” guztion artean identifikatzea, horra erronka. Gizon batek kezka erantzun dio hausnarketa honi: “kezka sortzen dit galdera honek, eta horregatik ez dut aukeratu, zalantzan jartzen duelako ordezkariak hautatzeko modua bera”. Beraren aburuz, ordezkapen sistema hobetzeaz aritu gaituzke, baina kontuz ibili behar gara ordezkapen sistema bera inpugnatzen duten bide “populistekin”.

Idea-truke honen aurrean, talde-motorreko kide batek mahai gainean jarri du galdera aldatu edo hobetzeko aukera. Zehazki, eztabaida honek agerian jartzen duena zera da: “fokoa aldatzen duzu, galderaren fokoa. Ordezkapen sistemaren pentsatu baino, ‘guztiok’ horren baitan nor falta den galdetzen duzu”. Hau guztia kontutan hartuta, honako moldapena proposatzen da: “Nola egin genezake sistema politikoa inklusiboagoa izan dadin, inor ez dadin geratu jadanik existitzen diren ordezkapen sistemetatik kanpo? Nola lortu hobeto ordezkatuak izatea?”

3-5 minutu inguru iraun duen hausnarketa hau itxita, hurrengo fasera igaroko diren bi galderekin itxi dugu tailerra:

- Nola bermatu interes kolektiboak ez direla interes pribatu/partikularrrak?
- Erabaki guneetan, nolakoa izan behar da parte hartzea? Zeintzuk dira mugak/ non parte hartzen da/ nortzuk parte hartzen dute?

Ebaluazio fitxak

Bukatzeko, partaideei ebaluazio fitxa labur batzuk pasatu dizkiegu, euren helbide elektronikoa eta dinamika zer iruditu zaien galdetzeko.